



TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO

hitza



Asteazkena
2009-04-22

VIIURTEA 1.682.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

Marka berria ezartzen saiatuko da Iñaxio Perurena

LEITZA Larunbatean izango da Amazabal pilotalekuan egingo duten herri kirol jaialdian 7

**Galtzaundik
'Irakurri, gozatu
eta oparitu'
egitasmoa
abiaraziko du**

TOLOSA Liburutegian mailegua egitean, Elkarren beherapena izango da 6

**Gazumeko parke
eolikoa egitearen
kontrako
alegazioak
jarriko dituzte**

ASTEASU Babestutako eremu batean egingo dela argudiatzen dute 4



Iñigo Iñurruta, Iñigo Cuesta, Ion Muñoz eta Iosune Aiestaran, atzo, aurkezpenean. N. URBIZU

90 AUTO GIDARI NOR BAINO NOR ÑAÑARRI RALLYESPRIANTEAN

IRURA Aurten bigarren ez egingo dute, Irurako Ikastolaren alde; inoiz baino parte-hartzaile gehiago egotea espero dute antolatzaileek 5



MABEL CAÑADA
LAKABEKO SORTZAILEA

«Eredu patriarkatik datoz egungo arazo asko»

TOLOSA Naturaldiaren baitan, hitzaldia emango du, gaur, Kultur Etxean 2


BERRIA



bidali opor
hauetako argazkiak!



1.Saria



Aldori landetxean 2 pertsonentzako astebururako egonaldia



2.Saria

Larrea

Larrea jatetxean bi pertsonentzako otordua

3.Saria

Gorrotxategiren saski berezia: Txokolatezko txapela, xaxu kaxa, teilak eta zigarratxoak, gurinezko pastak eta Txakolinezko bonboiak

**ARGAZKIAK
NORA BIDALI**

• **P. elektronikoa:**
tolosaldean@tolosaldekohitza.info
• **Postaz:**
Argazki lehiaketa,
Tolosaldeko eta Leitzaaldeko Hitza,
Araba etorbidea 5 behea, atzea
20400 TOLOSA
Nahi baduzu, argazkiak Tolosako edo
Leitzaaldeko HITZAren egoitzetara ekarri

Parte-hartzaile eta boto emaleen artean HITZAko materiala zozketatuko dugu!

Gizon bat atxilotu dute Tolosan, ustez, emakume bat erasotzeagatik

Tolosa » 12:00ak inguruan Alde Zaharreko Arostegieta kalean gertatu zen eraso; ikerketa irekita dago oraindik.

ERREDAKZIOA

Gizonezko bat atxilotu zuen atzo Ertzaintzak Alde Zaharreko Arostegieta kalean, ustez, emakume bat erasotzeagatik. Ertzaintzak jakitera eman zuenez 12:00ak inguruan gertatu zen.

Emakumea Tolosako Anbulategira eraman zuten zenbateko kalteak zituen aztertzeko. Ustezko erasotzailea, berri, atxilotua izan zen eta oraindik ikerketa irekita dago.



Zirika Zirkusekoak Ibarrara datoz. o.e.

Zirika Zirkusen eskutik, magia, malabareak eta gehiago, bihar arratsaldean

Ibarra » Ametsak. Zirkoa. Kabareta' izeneko ikuskizuna aurkeztuko dute bihar 19:00etan, Kultur Etxean

ERREDAKZIOA

Galtzaundi Euskara Taldeak Topaguneko kultur errotaren baitan antolatutako ekitaldien baitan, bihar, Zirika Zirkus taldearen Ametsak. Zirkoa. Kabareta umorezko emanaldia ikusgai izango da Ibarako Kultur Etxean. Ikuskizuna 19:00etan hasikoda.

Emanaldia helduei zuzendua baldin badago ere, gazte edota haurrek parte hartu dezakete. Sudur gorriak antzokia garbitzera joan dira, baina... ametsetan hasi eta: Akrobatak, dantzariak (klake, tango) malabaristak, magoak... bihurtuko dira, ez noski nagusiaren laguntzaz. Nagusiari ez zaio langileak "ametsetan" ikustea gustatzen. Akrobaziak, malabareak, akropert, magia, antzerkia, dantzakomikoa, globoflexia, klake dira ikuskizun honen ezaugarriak.

E Elkarrizketa

MABEL CAÑADA » Lakabeko komunitatearen sortzaileetarikoa



INIGO URIZ / ARGAZKI PRESS

«Egungo arazoetako asko jarraitzen dugun eredu patriarkaletik datoz»

Tolosa » Naturaldia jardunaldien baitan, Mabel Cañadak hitzaldia eskainiko du gaur iluntzean, Kultur Etxean, 'Femeninoaren udaberria' izenburupean.

ESTI EZEIZA

Naturaldia jardunaldien baitan, gaur Mabel Cañada, Lakabeko komunitatearen sortzaileetako bat izango da hizlari. Femeninoaren udaberriari bezala izendatu du saioa. 20:00etan hasiko da hizketaldia, eta Kultur Etxean izango da. Aurkezle lanetan Itziar Eizagirre ariko da, Ingurumen aholkularitzan espezializatutako abokatua.

Zeren inguruan mintzatuko zara gaur?

Egun bizi dugun garai honetan, gizaterian, erakutsi nahi dut, nola femeninotik datozen ezaugarriak gehiago sartzen joan behar dugun. Izan ere, bizi ditugun arazoetako asko jarraitzen dugun oinarri patriarkaletik datoz. Oinarri horiek pentsakera militarrek markatuta daude, egitura jerarkikoekin, agintekin eta ordenarekin. Oraindik, gizarte mailan, kalitate hauen eraginpean gaude. Hauek, aurreko garaietatik datoz, eta pixkanaka, aldatzen doaz. Horregatik aipatzen dut udaberri hitza, loratzen ari baitira balore femeninoak. Mende ugari daramatzagu hauek aldarrikatuz, eta azkenik zabalitzen ari dira, eta gizartera edatzen. Halaber, gizatasuna, konfiantza eta eskuzabaltasuna bezalako kualitateak agertzen joan beharra daukate. Hauek gizartearen beste

alde bat gorai patuko dute, eta aldi berean, osatu. Hau gertatu arte, salduta gaude emakumeak, kolektibo gizatiar bezala.

Eredu patriarkal horrek eragina du beraz ingurugiroan.

Askotan ez gara ohartzen baina, nahiz eta aldatzeko borondatea dugun pertsonak izan, kultura horren eraginpean gaude. Natur arloko gauzetan sartzen garenean, modu zakarrean egiten dugu, eta modu totalitarioan. Hala, mendimazeta guztia moztzeko gai gara,

Naturaren oinarriko energiak orekatu arte, ezingo dugu bidezko garapenik izan

nahiz eta gero geratzen den lur apurra urak eraman. Naturan esku hartzeko moduan, osotasun hori ulertu beharra daukagu, eta beraikin lan egin.

Nabaritzen al da femeninoaren indartze hori?

Nabaritu behar litzateke. Modu batean, orain arte, femeninoa alde intimoan ordezkatua egon da. Ondorioz, ez da azaleratzen gizarte mailan, eta gizarte egituretara ez da zabalitzen. Oraindik, oso patriarkalak, bertikalak, esklusiboak izaten jarraitzen dute. Femeninoko arlo intimokoak izaten jarraitzen du: giza harremanetako eta tribu handietako. Hori dela eta, honek ahalbidetzen du genero indarkeria izatea. Hau ekiditeko sistema egoikiak ez baitira ezartzen oraindik. Baina plano intimo horretatik gaur, eta gizartera zabaldu. Balore hauek indartu eta gailentzen dire-

nean, osotasun sentsazio bat bizi-tuko dugu. Orain, une horretan gaude, eta ezin dugu gehiago atzeratzen utzi.

Beraz, gizartearen gertatzen dena- ren islada da ingurugiroaren arazo ere.

Bai, noski. Denak bat gara, ez dago bereizketarik, eta naturaren oinarriko energiak orekatuz iristen ez garen arte, ezin izango dugu gizartearen, nahiz gizaterian, bidezko garapen bat izan. Beti, alderdiki-riak izango dira, eta sektore batzuk beste gainetik jarriko dira.

Oreka hau lortzeko, zeintzuk dira eman beharreko pausoak?

Hasteko, gizarte bezala, ohituta gauden paradigmatik aldatu behar ditugu. Zerbait balorea emateko garaian, irizpide batzuen arabera egiten dugu, eta hauek menderatze-koak izaten jarraitzen dute. Ondorioz, men egitekoak beste sektore batzuetan. Halaber, hauek aldatzen joan behar dugu, eta balore menderatzaile horietatik igaro, egiturak oinarritik aldatuz.

Lakabeko komunitateko sortzaileetako bat zara. Eredu honetaz mintzatuko al zara?

Zenbait unetan, agian, esenplu batzuk jarriko ditut pentsamendu honetara nola iritsi naizen azaltzeko. Lakaben egindako lanaren ondorioz iritsi bainaiz. Bertan, giza harremanen inguruko lan asko egin ditugu, gizakiok nola funtzionatzen dugun ikusteko. Baita lurral-ekin ere, begiratuz eta ulertuz honen eskuzabaltasun handi hori. Naturari berdin dio nor zaren, de- non gainean egiten du euria. Ez du mugarik jartzen eta denentzako loratzen du.

Lakabe, ekoherrixka bat da. Zein-

tzuk dira bere ezaugarri nagusiak?

Ekoherrixka terminoa nahiko berria da. Honek hitz batean definitu nahi du zenbait lagunen borondatea, beraien bizitza, eraikitze-ko modua, landatzeak, abeltzantzakoa, besteekin harremanetako... aldatzeko. Gizatasuna eta eskuzabaltasuna gizartearen zabalteko egitasmo horren eredu, eta ahalegin bat da Lakabe. Baina, sakontasunetik, ez hitz politekin eta aldarrikapen politikoekin bakarrik. Ni gai naiz errespetua izateko, beste une batean gorrotatuko nituen pertsonetako. Hala, egi hori sakontasunetik sentitzeko gai naizen horretatik, zentzua dut, eta aukera dagoela ikusten dut. Amesten dugun gauza bat da, baina lortu dezakeguna.

Eskuzabaltasuna eta gizatasuna gizartearen zabalteko egitasmoaren eredu da Lakabe

Ingurumena ez errespetatzearen ondorioak jasoko al ditugu, epe motzera?

Errespetu faltak beti ditu ondorioak epe motzean nahiz luzean. Orain, egia da, epe luzera nabarmenagoak izango direla hauek. Hala ere, gaur egun, jada, zenbait zantzu ari gara ikusten: hondamendi arinak, sute masiboak, landare geruzaren murriztea... Naturaren ematen ari zaizkigun zenbait seinale dira hauek, ulertu ahal izan dezagun zein den bere prozesua. Lurrara lotuta bizi garen pertsonen nabaritzen ditugu aldaketak batzuk.

Laburrak

Hautesle zerrendak ikusgai daude udaletxean

TOLOSA ■ Indarrean dauden hautesle zerrendak jendaurrean ezarrita egongo direla adierazi dute Udaletik. Hain zuzen ere astelehentik daude jarrita, eta datorren astelehena bitarte egongo dira. Epe honetan, hautesle zerrendan beharrezkotzat jotzen diren erreklamazioak aurkeztu ahaliko dira.

'100% Tricicle' saiorako txartelak salgai daude

TOLOSA ■ 100% Tricicle emanaldia eskainiko du Tricicleren Clowning konpainiak larunbat honetan, hila- ren 25ean, Leidor aretoan. 20:30ean izango da saioa, eta Tolosakoa estrenaldia da Euskal Herria mailan. Sarrerak 15 euroren truke eskuratu daitezke ohiko moduan, hau da, www.kutxa.net-en, Servikutxan, Telekutxan edota 943 00 12 00 telefono zenbakira deituta. Gainera, eskaintza berezia ere baliatu ahaliko da, izan ere, %30eko deskontua izango dute leihatilan, aldeaz aurretik erosten dutenek, gazte-txartela erabiliz, edota familia ugariak edo jubila- tuak direnek.

T Telefonoak

Larrialdiak. ((112))

OSASUNA.

Alegialdea. Osasun z.: 943 653212

Anoeta-Alkiza-Hernalde.

Medikua: 943 65 23 39

Asteasu. Medikua: 943 692423

Baliarrain. Medikua: 943 889003

Berastegi-Elduain.

Medikua: 943 683361

Bidegoian. Medikua: 943 681134

Ibarraldea. Osasun etxea: 943 672411

Ikaztegieta. Medikua: 943 653329

Irura. Osasun zentroa: 943 690720

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Orendain. Medikua: 943 655595

Orexa. Medikua: 943 682228

Tolosa.

Anbulatorioa, larrialdi: 943 461111

San Esteban: 943 006800

Gernikako arbola: 943 006900

Amarozko dispen: 943 672637

Asuncion klinika: 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdiak)

DYA: 943 672536

Gurutze Gorria: 943 674888

Villabona. Anbulat.: 943 006970

Zizurkil. Aiztondo zerb.: 943 693930

GARRAIOAK.

Renfe: 902 24 02 02

Donostiako autobusa: 943 361740

Tolosalde bus: 943 650621

Leitzarar autob.: 948 221015

Taxia: 943 670420

Taxia (Leitza): 608 873016

BESTERIK.

Ertzaintza: 943 538820

Tolosa-Udaltzaingoa: 943 675858

Tolargi: 943 650016

Iurramendi egoitza: 943 670325

Tolosa gasa: 943 675320

Alkoholiko anonimoak: 943 248474

Txileko kaleko artistekin elkartrukea

Tolosa ■ Txileko artista talde batek maiatzean GKO Galleryan jarriko du erakusketa; kaleko artea ere jorratuko dute.

INIGO TERRADILLOS

Proiektu berri batean bete- betean murgilduta dabil- tza GKO Gallery-ko kideak. Kasu honetan, Txileko artista tal- de batekin elkartrukea burutuko dute. Hala, une honetan hainbat artista txiletar gurera etorri dira euren lana ezagutzera ematera, eta hilabete batzuren buruan hemen- goak izango dira Txilera joango di- renak.

Duela lau hilabete jarri ziren ha- rremanetan Txileko KiltV izene- ko artista taldearekin. «Kaleko ar- tea jorratzen dute hauek, eta beste lurraldeetan arte mota hau nola egiten den ezagutu nahi zuten, ideiak eta esperientziak trukatzeko asmoz. Honela sortu zuten *Herriko Elkarrizketak Txile/Fran- tzia/Espainia* (Dialogos Urbanos Chile/Francia/España) proiektua», azaltzen du Garikoitz Mu- ruak Tolosako GKO Galleryko ki- deak.

Spacejunk izeneko Grenoble, Baiona eta Bourg-Sain-Maurice herrietako galeriekin eta Tolosako GKO Gallery-arekin adostu dute elkartrukea, eta ondorioz, galeria horietan Txileko artistek euren lan- ekin osaturiko erakusketak jarri- ko dituzte. Hori ekimen honen le-



Baionan izan ziren iragan igandean Txileko artistekin batera. HITZA

hen zatia baino ez da izango, izan ere, bigarren zatian aipaturiko ga- leria horietako kideak izango dira Txilera joango direnak euren la- nak bertan ezagutaraztera.

Esperientzia «aberasgarria»

Proiektua hasi zenetik buru-bela- rri ari dira lanean. «Guztia ondo zehaztu beharra dago; orain, esa- terako, hemen go artistak Txilera joan ahal izateko finantziazioa ari gara lortzen», dio Muruak.

Maiatzaren 8an inauguratuko dute txiletarrek erakusketa Tolosako galerian, baina erakusketa ez gain, ekintza gehiago ere egin nahi dituzte: «maiatzaren 6an herriko zati bat, Berazubiko futbol zelaia- ren orma ziumenik, pintatu nahiko genuke graffitekin beraiek eta gu elkarrekin, eta maiatzaren 7an ere kaleko artea jorratu nahi dugu, eta Plaza Zaharrean egitea ari gara pentsatzen».

Erakusketa zabaltzeko bi aste geratzen diren arren, dagoeneko Euskal Herrian dira Txileko KiltV artista taldeko kideak, bihar zabalduko baitute Baionako ga- leria erakusketa. Tolosarrekin txile- tarrak eta euren lana ezagutzeko aukera izan dute dagoeneko, eta «oso esperientzia aberasgarria» izaten ari dela diote. «Oso lan handia, garrantzitsua, ekarri dute. Truka- ketak honekin bakoitzaren lan egi- teko moduz ikasi dezakegu; gu, esaterako, harriduta geratu gara gu baino baliabide gutxiarekin zenbat egiteko gai diren, material asko errezikatzen baitute».



Turismoaren garrantziaz ohartarazteko

GIZARTEA ■ Turismoaren baitako Jardunbide Egokien Programaren inguru- an mintzatu ziren atzo Aranburu jauregian izandako jardunaldian. Eus- ko Jaurilaritzako ordezkariak eta gaiaren inguruko adituak egon ziren ber- taratu zirenei ekimena azaltzen eta turismoak eta jardunbide egokiek

duten garrantziaz ohartarazten. Halaber, gaiaren inguruan eskarmentua duten ostalaritza alorreko ordezkariak ere izan ziren euren esperientzia- ren berri ematen. Programa honetan parte hartzeri gonbidatu zituzten, «zerbitzuak eta kalitatea hobetuz, emaitzak ere hobetzea lortzeko». i.T.

Gazumeko parke eolikoa egitearen aurkako alegazioak jarriko dituzte



Asteasu » Besteak beste Sagain mendi taldeak jarriko ditu; babestutako eremu batean egingo dela argudiatzen dute.

IMANOL GARCIA

Hainbat elkarte, tartean Asteasu-ko Sagain mendi elkarteak, alegazioak jarriko dituzte Gazumeko parke eolikoa egin ez dadin. Orain gutxi publikatu dira Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean parkea egitearen baimen administratiboa eskatzen duen espedientea eta horrekin batera ingurugiro-eraginaren deklarazioa. Sagainez gain beste zenbait elkarte jarriko dituzte alegazioak: SEO-Birdlife Donostia, Eguzki, Vasco de Camping Elkarteak, Azpeitiko Lagun Onak mendi elkarteak eta Gipuzkoako Mendizale Federazioak.

Alegazioak jartzeko argudio garrantzitsua Ernio-Gazume mendilerroa Natura 2000 Europako Sarearen eremua dela da eta



Goiko argazkian, Ernio eta Gazume mendiak, erdian Zelatun mendilepoa dagoela. Beheko argazkian, Gazume mendiaren tontorra lehen plano eta urrutian Ernio ikusten da. HITZA

beraz, espazio babestua dela. Sare ekologiko honen helburua hainbat habitat mota natural eta espezie interesgarri gorde edo, hala bada, gorkio, indarbertze da. Hain justu, eremu horretan babesturiko espezieak eta espazioak aurki daitezkeela azaltzen dute.

Gazumeko parke eolikoaren aurka dauden elkarteek energia eolikoaren aurka ez daudela azaltzen dute. Energia berri tagarrien eta horien artean energia eolikoaren aldekoak direla diote, baina kontuan hartu behar dela parke eolikoaren kokapena. Gipuzkoako

Mendizale Federazioak azaltzen duenez, «uste dugu energia eolikoaren aldeko apustuak gure ingurua oro har errespetatu behar dela, eta bereziki gure mendiak; izan ere, mendiak gure lurraldearen gune enblematikoak dira eta bertan gauzatzen ditugu gure kirol jardunak». Beste elkarteetatik gaineratu dutenez, energia eolikoaren alde egiteak «ez du esan nahi ingurugiro-eraginaren ebaluazioaren prozesu objektiboak ez direnik egon behar. Egin beharrekoa da naturaren kontserbazioa ahalbidetu dituen kokapenak edo eztaugarri teknikoak bilatzea».

Energia eolikoa ingurugiroan kalteak eragiten dituela ere gaineratu dute elkarte hauek: «Eragin horiek muntai eta eraikitze fasean ematen dira eta modu iraunkorren energiaren ustiatetan». Besteak beste, ondorengo kalteak zehazten dituzte: «Zarata, paisaiaren inguruko eragina, okupazioa, lurzorua degradazioa eta habitaten txikizioa, faunaren inguruko eragina kolpeengatik, eragozpenengatik eta bere habitoki eta mugitze-eremuetatik aldentzeagatik, migrazio bideetan barrera efektua...».

71 metroko 15 aerosorgailu

Parke eolikoaren proiektuak zehazten duenez, 15 aerosorgailu aurreikusten dituzte. Aerosorgailuen altura 71 metrokoa izango litzateke eta errotorearen diametroa 58 metrokoa. Parkearen potentzia guztira 12,75 MWkoa izango litzateke eta aurrekontua 20,4 milioi eurokoa.

Sagain mendi taldeak azaldu dutenez, beraien webgunean (www.sagain.org) aukera dago alegazioaren testua jaitsi eta sinatzeko. Interesa duenak, bestela, Sagaineko kideren batekin ere jar daitezke harremanetan. Bestalde, Vasco de Camping Elkartearen egoitzan (Donostiako Iparragirre kalea 8) mahaia jarriko dute alegazioentzako sinadurak jasotzeko. Mahaia astelehenetik ostiralera egongo da, 18:30etik 20:30era. Honez gain, Donostiako Boulevardean mahaia jarriko dute larumbatean, hilak 25, 17:45etik 19:00etara. Sinadura bilketaz gain, Sagain, SEO-Birdlife, Eguzki, Vasco de Camping Elkarte eta Lagun Onak taldeak deia luzatu dute Zelatun mendiaren 17an Gazumeko parke eolikoaren aurka egingo den elkarretaratzean parte hartzeko.

Iñaki Amenabar: «Proiektuak ahal duen eragin gutxien izatea da gure ardura»

Asteasu » Alkateak azaldu duenez, «Eusko Jaurlaritzak ematen ditu parke eolikoak eraikitzeko baimenak».

I. GARCIA

Iñaki Amenabar Asteasuko alkateak azaldu duenez, «parke eolikoa baimentzea ez da gure esku-mena, baimenak Eusko Jaurlaritzak ematen ditu». Eta gaineratu du Udalaren ardura proiektuak «ahal duen eragin gutxien izatea» dela.

Alkateak zehaztu duenez eta proiektuaren arabera, aerosorgailuak Errezilgo lurretan jarriko litzateke, Asteasuko lurretatik egingo litzateke parke eolikora iristeko bidea eta tentsio altuko kablea Azpeitia aldera joango litzateke. Proiektua aurkeztu duen enpresak bi aukera proposatu zituen bidea egiteko, Amenabarrek azaltzen duenez: «Aukeretak bat Iturriotz baserri ingurutik izango zen, bide berri bat eginez. Bestea Sagain mendialdetik izango zen, bertan abereak dituztenek erabiltzen duten bidea aprobetxatuz. Bigarren aukera hobeagoa dela azaldu dugu Udaletik, eragin txikiagoa izango baitu dagoen bidea aprobetxatzeak berri bat egiteak baino».

Sagain mendi aldetik joango litzatekeen bideak bi kilometro inguru ditu eta zati batean nahiko aldapsua da. «Zati horretan proiektuak sigi-sagaka egitea proposatzen zuen eta gure aldetik esan dugu hobe dela ezkeraldera dagoen zelaitik joatea, eragin txikiagoa izango baitzuen», azaldu du Amenabarrek.

Enpresa ez da jarri harremanetan lur jabeekin

Bideak hartuko litzuzkeen lurren jabea ez da Udala. Proiektua egin duen enpresa ez da jarri harremanetan oraindik lur horien jabeekin. Dirudenez, aurrerago jarriko dira harremanetan, Eusko Jaurlaritzak exekuzio proiektua onartu eta gero. Alkateak gai honen inguruan azaldu duenez, «gure ardura bide horrek ahal duen eragin txikiena izatea da eta lurren jabeekin ahal den adostasun gehiena lortzea da».

Tentsio altuko kablea nondik joango zen bi proposamen zeudela azaldu du Amenabarrek: «Horietako bat Azpeitia aldera zen eta bestea Aduna aldera. Adunara joango bazen, Asteasuko Elizmendi auzotik, Zizurkil Goitik eta Adunatik pasako zen, jendea bizi den lekuetatik. Gure aldetik defendatu genuen hobe zela Azpeitia aldera joatea kablea, hortik ez bailuke bizilekurik hartuko eta eragina, beraz, txikiagoa izango zen».



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

«Rallyesprintik jendetsuena izango da; 90 auto gidari ariko dira larunbatean»

Irura » Irurako Ikastolako eraikin berriari laguntzeko helburuarekin antolatuta, dena prest dago II. Ñañarri proba aurrera eramateko.

ERREDAKZIOA

Aurten, bigarren aldiz, Irurako Ikastolak Hondarribiko Sardara Motor Elkartearekin elkarlanean, II. Ñañarri Rallyesprintaren antolaketa hartu du bere gain. Guztira 90 lagunek hartuko dute parte: «Inoiz baino jende gehiago ariko da, rallyesprintik jendetsuenerikoa izango da». EAEko eta Nafarroako Rallyesprinten egutegian puntuagarria izango da rally hau. Alegiatik abiatuko den rallyesprint honek Orendaindik eta Abaltzisketatik pasatu ondoren, Amezketan izango du helmuga. Bertan izango da sari banaketa beraz.

II. Ñañarri Rallyesprinta Alegiatik Orendainera joateko bidegurutzean hasiko da. Orendaindik eta Abaltzisketatik pasako da, eta hemen, Larrunarri edo Ñañarri eskuinaldean utzita, Amezketara jaitziko dira, herrira iritsi baino lehen helmugaratzeko. Guztira, 10 km eta 350 m dituen ibilbidea da.

Gainontzeko rallyesprintekin alderatzuz gero, «ibilbidea azkarrak eta teknikoak izango da, bihurgune itxi gutxi baititu. Gainera, errepidea oso egoera onean dago eta horrek abiadura handia hartzeko aukera emango die auto gidariei».

Auto gidari ezagunak

Izena emateko epea oraindik amaitu ez bada ere, Euskal Herriko piloturik onenak bertan izango dira. Gisa honetako proben sailkapenean lehia handia dago; hori horrela izanik, aurrean egon nahi duten pilotu guztiak etortzea espero da. Gorka Apalantza izako txapel-duna Subaru Impreza WRCarekin aterako da; Joseba Zapirain



Prentsaurrekoan, Iñigo Iñurrita koordinatzailea, Iñigo Cuesta federazioko lehendakaria, Ion Muñoz Sardara Motor Elkarteko zuzendaria eta Iosune Aiestaran Irura ikastolako zuzendaria. N. URBIZU

Peugeot 206 WRCarekin (aurten-gorako Rallyesprint txapelketan lehen behin-behineko sailkapenean); Xanti Artetxe edota Ramon Apalantza, askoren artean.

Bertako gidariak goraiapatzearen, Txema Uzkudun anoetarra Renault Clioarekin, Markos Landabartarra Seat Ibizaarekin eta Aaron Robles zizurkildarra BMW 325arekin izan daitezke.

Aipatu beharra dago, lehen adierazi bezala, II. Ñañarri Rallyesprinta Nafarroako Rallyesprint txapelketarako puntuagarria dela eta ondorioz gidari nafar nabarmenenak bertan izango dira. Hala nola, Fernando Egozkue Peugeot 206arekin eta Martin Villares Renault Clio Sportarekin.

«WRC indartsuaz gain, beste pilotu asko ariko dira, 90 inguru». Beraz, espero zituztenak baino gehiago. Esan behar da, baita, II. Ñañarri Rallyesprint hau Traseras koparako puntuagarria izango dela. Hainbat pilotu junior bertan izango dira; besteak beste, Xabat Arrate behin-behineko lehen sailkatua Euskadiko Txapelketan, Opel Corsarekin; Eneko Zelaia, Euskadiko Txapelketan bigarrena, bere Citroen Saxoarekin.

O autoko gidaria Saul Robles zizurkildarra izango da, aurreko urtean BMW 325 batekin Euskadiko Txapelketan parte hartu zuena, hain zuzen ere. Ooko gidaria, berriaz, Ion Muñoz Sardara eskuderiako partaidea dena, eta Ookoan pilotu izandako Amezketako Joxe Karrera ariko da, Wolswagen Si-roccobatekin.

Ordutegiari lotutakoak

Larunbatean, Rallyesprintaren egunean, 09:00etatik 12:00etara egiaztapen administratiboak eta teknikoak egingo dira Alegiako Fabrensa industrigunean. 14:30etik aurrera, autoei azken uneko ukituak egiteko eta gurpil egokiak ezartzeko, Aldaba azuko Lantier eta Panelfisa enpresen ingurura abiatuko dira (Ikaztegieta ondoan). «Hau ere oso polita izaten da ikusteko eta herritarrak bertara ere joan daitezke, noski».

15:30ean puntuan lehenengo autoari irteera emango zaio; ondoren, gainerakoak minutuko tartearrekin, burutuko diren hiru txandetako lehena hasteko.

Lasterketako denborak eta nondik norakoak jarraitzeko aukera izango da *Hiru Erregeen Mahaia*

Euskadi Irratiko irratsaioan, irteera postuarekin eta helmuga-postuarekin une oro egingo baititu konexioak.

Segurtasuna eta garbitasuna

Rallyesprintaren antolatzaileek «esfortzu berezia» egin dute eta egingo dute bi alor hauetan, eta ikusleei ere «gauza bera egiteko» eskatu zuten. Segurtasuna zaintzeaz Sardara eskuderia arduratuko da. Probara joango diren ikusleei, komisarioen aginduak jarrai-

tuz, euren autoak modu egokian utz ditzaten eta proba ikusteko toki seguruetan jar daitezzen eskatuko zaie antolakuntza-taldeen aldetik.

Garbitasuna mantentzeko ere eginahalak egingo dituzte rallyesprintaren antolatzaileek. Ibilbideko hainbat gunetan zakarrontziak egokituko dituzte. Antolatzaileek, txukuna izatea eta rallyesprintaz gozatzea bateragarriak direla frogatzeko ahalegin berezia egiteko eskatzen diete bertaraten diren guztiak.

Auto ahalik eta gutxien hurbiltzea gomendatu dute

Ikusleek, ahalik eta auto gutxien gerturatzea eskatu dute ere. Dena dela, autoz gerturatze, Larraitzen aparkatzeko gomendioa egin dute, leku asko egongo baita bertan. Hara joateko Zaldibiko bideetik joateko gomendioa egin dute, izan ere, 14:00etatik aurrera ezin-go da Amezketatik gora egin, ezta Alegiatik Orendainera ere. Dena dela, Orendainen ere autoak uzteko egokitzapenak egin dituzte.

Beraz, autoa lasterketako zirkuituaren barruan utzi badute, ezingo dute bertatik atera dena bukatu arte, hau da; baliteke 20:00ak izatea.

Bukatzeko, Josune Aiestaranek eskerrak eman nahi zituen, batez ere, Alegiako, Abaltzisketako, Orendaingo eta Amezketako Udalei, «eskaimitako laguntzarengatik». Ahaztu gabe, babesleak ere gogoratu zituzten.

AMEZKETAN ETZI AZKEN ERREKONAZIMENDU PROBA EGINGO DUTE

Amezketako Udalak, Rallyesprinteko errepidearen azken errekonozimendu saioa etzi egingo dute, gogorarazi nahi izan du. 09:00etatik 17:00ak bitartean egingo dute. Ibilgailu normalarekin egiten dira eta legez ezarritako dogaren abiadura gainditu gabe; horregatik, ohiko egun batean baino trafikoa gehiago nabaritu daiteke etzi.

Proba egunean larraldiren bat izanez gero, SOS Deiak 112 zenbakira deitu beharko da.



Intxurre Idiazabalgo X. Torneoan

ALEGIA » Joan den asteburuan Alegiako Intxurreko infantilek alebelinekin nahastuta, Idiazabalgo X. Futbol 8 Torneoa jokatu zuten. Ez dute aurten garaipena lortu aurreko hiru urteetan bezala, baina azpitxapeladunak izatearekin ere, «pozik» daude gaztetxoak. Iñitxa, Urnieta, Idiazabal eta Intxurre aritu ziren jokatzeko ligaxkan. Finala Iñitxaren kontra jokatu zuten alegiarrek baina 1-3 bukatu zen partida, Idiazabalen alde. X. RENOBALES

Apirileko eta maiatzeko zine bonuak bihar eta etzi erosi ahal izango dira

ERREDAKZIOA

Apirila-maiatzeko zine bonuak bihar eta etzi salduko dituzte Tolosako Leidorren 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 19:00etara, eta asteburuan zine saioetan. Hiru bonu mota daude: saio guztiarako 12 euroan, gauearako 8 euroan eta azkenik, arratsaldeko bonua, 8 euroan ere.

Irakurzaletasuna sustatzeko egitasmoa abiarazi du Galtzaundi Euskara Taldeak

Tolosa » Uztailaren 25era arte liburu bat maileguan hartzen duenak %25eko beherapena izango du Elkar liburudendan.

ERREDAKZIOA

Galtzaundi Euskara Taldeak *Irakurri, Gozatu eta Oparitu Tolosan!* egitasmoa abiarazi du, Liburuaren Egunaren harira. Ekimena ez da berria, Euskal Herriko herri ugartan jarriko da martxan eta aurten lehen aldiz Tolosara ekarri du Galtzaundi Euskara Taldeak. Helburu nagusia «irakurzaletasuna sustatzea» dela adierazi dute.

Galtzaundik Tolosako liburutegiekin eta Tolosako Elkar liburudendarekin elkarlanean gauzatu du projektua. Funtzionamendua gaurtik, Liburuaren Nazioarteko Egunean, uztailaren 25era, Tolosako edozein udal liburutegitan euskarazko edozein liburu maileguan hartu eta irakurri egin behar da.

Galtzaundiko bazkideek ere beherapenak

Liburua itzultzean, liburuzainak emandako fitxa bete behar da, liburuari buruz iritzia emanez. Adin tarte bakoitzeko fitxa bana egongo da, eta txikiaren kasuan heldu baten beteko dio formularioa. Fitxa betetakoan, liburuzainak oparitzeke bat emango dio irakurleari. Honekin, %25eko beherapena egingo diote Alde Zaharreko Aroztegieta kaleko Elkar liburudendan euskarazko edozein liburu erosterakoan.

Gainera, Galtzaundi Euskara Taldeko bazkideek beste %25eko beherapen gehigarria izango dute,



haur liburuaren nazioarteko egunean piruletak banatu zituzten, iaz, A. IMAZ

aurrekoarekin metagarria izango dena. Beherapenak inoiz ezinongo duela 25 euro baino gehiago izan adierazi dute.

Liburu gomendagatuen zerrenda osatu du Galtzaundik
Liburu gomendagarrien zerrenda Topaguneak, euskarazko 100 liburu gomendatzeko eskumena ere hartu du. Uxue Alberdi idazleak osatu du 90 liburu gomendagarrien zerrenda.

Galtzaundi Euskara Taldeak, bere aldetik, beste hamar liburu gomendagarri gehitu dizkio zerrenda horri. Zerrenda honetan, adin tarte guztietarako egokiak diren liburuak sartu ditu. Zerrenda hau, *Irakurri, Gozatu eta Oparitu* egitasmoaren webgunean kontsultatu daiteke.

Irakurzaletasuna bultzatzeare-

kin batera, xede gehiago ere ukitzen ditu *Irakurri, Gozatu eta Oparitu* egitasmoak; batetik, euskararen erabilera gozagarria bultzatu nahi du, eta kulturak eman dezakeen plazera aldarrikatu.

Bestalde, «euskaltzaleak liburutegi publikoen erabilztaile aktibo bihurtu» nahi ditu egitasmoak.

Euskal Herria osoan zabalduko du Topaguneak 'Irakurri, Gozatu eta Oparitu' egitasmoa

Halaber, aurrera eramango dutenen elkarlana ere jada baba lortutako helburu bat. Eta azkenik, *Irakurri Gozatu eta Oparitu* programaren bidez, euskarazko liburuaren ekoizpena eta salmenta ere sustatu nahi dituzte.

Gutunak

AHT: Hernialde-Zizurkil tramoa

Azkeneko berria, Hernialde-Zizurkil tramoaaren Proiektu Basidugoa izan dugu. Gainera nola informatuak!

Aiztondo bailaran, Asteasuko zati bat hartzen du tunelean, baina batik bat Zizurkil harrapatzen du tramo honek. Zera esan nahi du; Zizurkilgo Udalarekin harremanetan egotea. Eusko Jaurlaritzaren Lurraneke deituta, informazioa udaletara bidaliko dutela diote; beraz, Zizurkilgo Udalaren atzetik ibili behar izatea suposatzen du.

Gauzak horrela, harremanetan gaude eta azkenik urtearen hasieran egon ginen Mari Angeles Lazkano anderearekin. Informazioa

iritsi bezain laster jakinaren gainean jarriko gintuela esan zuen. Baina ez! Anoetako Udalera iritsi omen zen Proiektu Basidugoa eta guk oraindik jakin gabe. Zizurkilgo Udalera apirila erdialdean joan eta han zuten. Gainera, Proiektuaren aztertzea burututa zuten, txostena eginda, eta zera jartzen du lehen parrafoan: 2009ko martxoaren 9an sarrera izan du Udal honetara.

Egoera ikusirik, ez dute inondik inora herriari informatzeko asmoa, deialdiak burutuz, Anoetan egin zuten bezala.

Besterik gabe, apirilaren 23an arratsaldeko zazpiretan informatzeko aukera izango duzue Zizurkilgo Atxulondo kultur etxean.

Aiztondoko AHTren aurkako taldea.

Laburrak

Mus txapelketa eta afaria Txarama Elkartean

LEABURU-TXARAMA • Larunbat honetan, urteroko ohiturari jarraituz, mus txapelketa eta afaria antolatuta dituzte Txarama Elkartean. Mus txapelketa 16:30ean hasiko da eta doan da bertan izena ematea. Lehenengo bi bikoteentzat sariak izango dira. Ondoren afaria egingo dute. Zerrendak jarrita daude bai mus txapelketarako bai afarirako ere elkartean bertan. Bihar da azken eguna izena emateko.

Podologoaren bisita gaur Alkatasuna biltokian

ANOETA • Alkatasuna biltokian podologoaren bisita izango dute gaur. Jubilatuen elkartetik azaldu dutenez, kide ugari eman du izena podologoarena joateko eta horregatik gogorazi nahi dute podologoaren 14:45ean hasiko dela jenda hartzen.

Komunikatzeko gaitasuna landuko dute, larunbatean

TOLOSA • Sanatana Dharma barre adimentsuaren eskolak antolatuta, hilaren 25ean, larunbatean, Komunikatzeko gaitasunari buruzko ikastaroa eskainiko dute eskolan bertan. Interesatuak 943 118669 telefono zenbakian eman dezakete izena eta bertan informazio gehiago ere eskura daiteke. Ikastaroaren orduetgia 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:30era izango da.

Txosna batzordearen bilera gaur Gaztetxean

ANOETA • Heldu den ekainaren 5ean hasiko diren Anoetako Korpus jaien harira hasi dira gauzak antolatzen. Hori dela eta, gaur 19:00etatik aurrera txosna batzordekoek bilera deitu dute. Bileran Gaztetxean izango da eta jaien inguruan ariko dira.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldecohitz.info / Tel.: 943-65 56 95

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

KONDEKO ALDAPA, 5 - 20400 TOLOSA
TELEFONO: 943 67 00 40 FAXI: 943 670719
WWW.FUNERARIASVASCONGADA.COM

ZERBITZU IRAUNKORRA
902 402 900

Inaxio Perurenak esku bakarrarekin marka ahalegina egingo du etxean

Leitza » Amazabal pilotalekuan herri kirol jaialdia ospatuko dute hilaren 25ean, larunbatean, 17:00etatik aurrera.

ASIER IMAZ

Herri kirol jaialdia antolatuko dute Amazabal pilotalekuan hilaren 25ean, larunbatean, 17:00etan. Bertan aizkolaria eta harri-jasotzaileak egongo dira.

Hiru leitzar egongo dira kirolarien artean: Inaxio Perurena, Arkaitz Olano eta Ruben Saralegi.

Aizkolaria Urrezko Aizkolarien txapelketan lehiatuko dira. Inaxio Perurena harri-jasotzaileak marka ahalegina egingo du.

Esku batekin 234 kilo

«Oso gustura nago. Jasoaldi garbia eman dut, eta hori da garrantzitsuena. Halere, harria gerrira ekarri dudanean, irrist egin dit, eta apur bat behera joan zait, baina

Urrezko Aizkolarien lehia Arkaitz Olano eta Ruben Saralegi leitzarrik ariko dira larunbatean

ongi moldatu dut». Hitz hauek 2008ko otsailaren 10ean, Getxon, esan zituen Perurena II.ak. Minutu batzuk lehenago, 230 kiloko harri zilindrikoa 17 segundotan jaso zuen esku bakarrarekin: marka pertsonala eta historiako bigarren markarik onena.

Amazabal pilotalekuan esku bakarrarekin 234 kiloko harria bizkarreratzen saiatuko da Inaxio Perurena larunbat honetan. Jasoz gero, aitak modu berean lortutako

marka, 267 kilokoa, lau kilogertuago edukiko luke.

Olano eta Saralegi aizkoran

Leitzako harri-jasotzailearen marka ahalegina ez da jaialdiko ikuskizun bakarra izango, Urrezko Aizkolarien Txapelketako kanporaketak ere jokatuko baitira larunbatean.

Gazteen mailan bi herritar arituko dira lanean Amazabal pilotalekuan: Arkaitz Olano eta Ruben Saralegi. Hauen aurkariak aizkolaritzan abizen handiko bi gazte izango dira. Lehenak, Olanok, An-

der Erasumen aurka jokatu behar du eta Saralegik Ohian Larretxea edukiko du aurrean. Norgehiagokoa hauetan 14 enbor ebaki beharko dituzte 5 modu ezberdinetan.

Mindegia vs Azurmendi

Leitzan 17:00etan hasiko den herri kirol jaialdiari amaiera emateko, Urrezko Mailan bi aizkolaria handiren arteko lehia ikusteko aukera egongo da. 5 modu ezberdinetan 20 enbor ebaki beharko dituzte Mikel Mindegia eta Iñaki Azurmendi.



Harri jasotzaileak jantziko da berriro ere Perurena II.a larunbatean. IMANOL GARCIA

Mugarik muga herria ezagutuz

Leitza » Etzi herriko mugen inguruan hitzaldia antolatuko dute Aurreran. Larunbatean mendi ibilaldia egingo dute.

A. IMAZ

Mendibil mendi taldeak, Aurrera Kirol Elkarteak eta Leitzako Kultur Taldeak herriko mugak ezagutzeko hainbat ekimen antolatuko dituzte elkarlanean.

Bi egunetan zehar, etzi eta larunbatean, Leitza herriaren nondik norakoak gertutik gertura eza-

gutzeko aukera egongo da mendi ibilaldi eta hitzaldi banaren bitartez.

Etzi, hilak 24, hitzaldia: 'Leitzeko Mugarriak'

Herriko mugen ezagutza teorikoa hitzaldi baten inguruan antolatuko dute. Horretarako, hiru talde antolatzaileek, Joxe Migel Elozegi gonbidatu dute Aurrera Elkartera. Bertan, *Leitzeko Mugak* gaitzat hartuta hitzaldia eskainiko du etzi 19:00etan.

Antolatzaileek herritar guztiak gonbidatu dituzte Aurrerako ekitaldira.

Hilak 25, larunbata, mendi ibilaldia: 'Mugarrien Itzulia'

Teoriaz ongi jantzi ondoren, praktikarako umea etorriko da. Helburu horrekin antolatuko dute mendi ibilaldia hilaren 25ean, larunbatean. Lehen Mugarrien Itzulia egiteko 07:00etan jarri dute irteera ordua, herriko plazan. Bertatik lehenik Kortekobordara joango dira eta ondoren Rezola zentralera. Herriaren bi muga ezagutuko dituzte, baina ez guztiak. Informazio gehiagorako mendibilaurrera.nireblog.com helbide elektronikoa eskaini dute. Ibilaldia 6-7 ordu ingurukoa izango da.

Atzeratu egin dira Vazquez-en hitzaldiak

Areso » Amaia Vazquez-ek bihar eta hurrengo astean eskaini behar zituen hitzaldiak maiztatu izango dira.

A. IMAZ

Aresoko Guraso Elkarteak, joan den urtean Amaia Vazquez sexu hezitzailearen eta psikologo klinikoaren eskutik antolaturiko hitzaldien harrera ona ikusita, ikasturte honetarako ere hitzaldiak antolatu ditu, Gizarte Zerbitzuaren laguntzarekin.

Hasiere batean hitzaldiak Guraso Elkartearen lokalean egitea pentsatzen baldin bazuten ere, az-

kenean udaletxean egingo dituzte. Bakoitzak ordu eta erdiko iraupena izango du.

Ondorengo gaiak landuko ditu Amaia Vazquezek: Famili barruko komunikazioa eta Gurasoak izateko eredu ezberdinak.

Hainbat aldaketa

Lekuaz gain, Amaia Vazquezek hitzaldiak ez dira hasieran pentsatutako egunetan izango. Aurreko sitakoaren arabera bihar eta urteko astean eskaini behar zituzten hitzaldiak, baina Vazquezek egun horietan ezin zuenez, maiatzaren 8ra eta 15era atzeratu dituzte. Ordutegiari dagokionez, orain artean bezala mantenduko da, hau da, 15:00etatik 16:30era.

Arabara mendi irteera igandean 08:00etan

Ibarra » 'Geurea Ikurrina' lelopean Euskal Herrian zehar seigarren bidaia 'lasai-lasaia' egingo dute hilaren 26an.

A. IMAZ

Haitzetan Raju mendi taldeak eta Bai Euskal Herriari ekimenak mendi irteera «lasaia» antolatuko dute hilaren 26an, igandean.

Geurea Ikurrina lelopean Arabara joango dira oraingo honetan. Irteera Ibarako plazatik egingo dute, 08:00etan. Autoz Valderejora joango dira eta behin Araban, 4

ordu ibiliko dira oinez; «lasai-lasai, edonor joateko moduko ibilaldia egingo baitugu».

Animaliak ikusteko aukera

Antolatzaileen esanetan inguru haietan animalia bitxi ugari aurkitzen dira. Mendi irteera «berezi» honetan denak ikusteko aukera izango dutelakoan daude: «Baietz. Animalia moeta asko dago bertan. Ibilaldi haseran bingoko boletoa antzeko bat banatuko dugu animalien martzakiek. Denak ikusi eta apuntatzen dituenak sari bikaina edukiko du ibilaldiaren amaieran. Animaliak? Azterkiak, basurdeak, oreinak, kilkerrak...».

XVII. pilota txapelketan izena emateko aukera

Leitza » Eskuz Binakako Txapelketa laster jarriko da herrian martxan, izena emateko azken eguna hilaren 29a izango da.

A. IMAZ

Aurrerako pilotariak ohi bezala hainbat partida jokatu zituzten asteburuan. Hain gazte ez direnek, herrian bertan edukiko dute laster euren dohaina erakusteko aukera.

Eskuz Binakako Txapelketa

Herriko plazan egin ohi den Eskuz Binakako Txapelketaren XVII. edizioan parte hartzeko lehenik

izena eman behar izaten da, horretarako epea hilaren 29an amaituko da, 20:00etan.

Parte hartzaileek 15 urte baina gehiago eduki behar dituzte.

Aurrerako pilotariak

Pilotari gazteak han eta hemen ibili ziren asteburu honetan ere. Jon Jaunarenak adibidez Donostian, Teledonosti Txapelketan, 22-8 irabazi zuen. Irurtzungo Txapelketan Jon Lezea-Mikel Erasok 8-18 galdu zuten. Lizarrako Txapelketan Gil-Mitxaus bikoteak 18-7 irabazi zuen, Gartziaarena-Zubiriak berri 18-5. Paleta Goman, Iruritan, Agirre-Aristorenak 14 eta 30 irabazi zuten.



15°
8°

GOIZA EGUZKIA
ARRATS. EGUZKIA
BEROENA 18°
HOTZENA 8°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoetalea: 687 410 022. anoetaldea@tolosaldeko hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 032. ibarraldea@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leitzaldea: 687 410 118. leitzaldea@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L. ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

- **Anoeta.** Anoetako festei begira, hilaren 22an, 19:00etan, Txosna Batzordeko bilera egingo dute Gaztetxean.
- **Anoeta.** Alkartasuna biltokian podologoaren bisita izango dute apirilaren 22an. 14:45ean izango da elkartearen egoitzan.
- **Leaburu.** Apirilaren 25ean mus txapelketa egingo dute, 16:30ean, Txarama Elkartean. Doan izango da txapelketan izena ematea. Ondoren afaria egingo dute. Bietarako izena emateko azken eguna apirilaren 23a izango da.
- **Tolosa.** Larunbatean, hilaren azken larunbatarekin bat, Tolosa Kantari ekimenaren beste saio bat izango da Tolosako kaleetan. Hori dela eta, entsegua egingo dute Kultur Etxean 20.00etan.
- **Tolosa.** Ereite elkartek ipuin tailerra antolatu du bere egoitzan (San Esteban, 20) asteazkenetan 18:00etan hiru hilabetez (15 euro). izen-ematea, 685 750561 telefono zenbakian edo *multiculturalereite@yahoo.es* helbidean.
- **Tolosa.** Amarotzeko jubilatuek Arnedora irteera antolatu dute hilaren 26rako. Izen-ematea, jubilatuen egoitzan ostegun eta ostiralean 17:00etatik 20:00etara (12 euro). Informazioa 653 747192 telefono zenbakian.

Hitzaldia

- **Tolosa.** Mabel Cañada Lakabeiko (Nafarroa) komunitatearen sortzaileetarikoa *Femenoaren udaberrian* hitzaldia eskainiko du 20:00etan Kultur Etxean, Naturaldia jardunaldien baitan.

Ikastaroak

- **Tolosa.** Komunikatzeko gaitasunaz ikastaroa hilaren 25ean, 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:30era. Informazioa eta izen-ematea 943 118669 telefono zenbakian.
- **Tolosa.** Eskaladan hastapena ikastaroa helduentzat Usabal kiroldegiko rokodromoan astearte eta ostegunetan 9:30etik 11:00etara edo 19:30etik 21:00etara.

» GUARDIAKO FARMAZIAK


- **Tolosa.** Santamaria, I. Nafarroa etorbidea, 2. 943 654610.
- **Lekunberri.** Mendia, M.I. Aralar kalea, 25. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.


Edertasunak ez du etenik



COVADONGA ● Hotza nagusi izan zen Euskal Herrian Aste Santuko oporraldian eta, Olatzek bidalitako argazkiari erreparatuz badirudi Asturias aldean ere hala izan zela. «Gure oporraldia Asturiasko herri txiki batean igaro dugu, hain zuzen ere Cangas de Onisen. Nork pentsatu behar zuen Covadongako lakuetara igo eta guztia txuri txuri aurkituko genuela. hau poza!». OLATZ TELLERIA



AITZULOKO BEGIA ● Jende asko gurean geratu da aurten. Baita Onintza ere. Baina egun pasa ederra egin zuten beraiek eta hauxe kontatu digu: «Eguraldia lagun izan genuen egun batean, Araotz aldera joan giñen, handik gora igota, Gipuzkoako txoko izkutuenetako batetara igo ginen, *Aitzuloko begira*. Animatu, merezi du eta!». ONINTZA LIZARRA (IKAZTEGIETA)



EUSKAL HERRIA ● Bere oporraldia Euskal Herrian egin duela kontatu digu Haizea Saezek: «Euskal Herriak txoko paregabe asko ditu oso urrutira joan gabe, bere edertasunaz gozatzeko». Argazkia ikusita, arrazoi du Haizeak, dudarik gabe. HAIZEA SAEZ (AMEZKETA)



HITZAK harpidedunentzat
2 sarrera pare ditu

**Akaba Bera Bera
Balonmano Alcobendas**

Bidebietako kiroldegia
Apirilak 26 • igandea • 19:00



sarrerak eskuratzeko deitu: **943-65 56 95** harpidedun kodea eskura duzula



sarrerak

HITZAK harpidedunentzat
2 sarrera pare ditu

**II. Ñañarri
Rallyesprint**

Alegia - Orendain - Abaltzisketa - Amezketa
Apirilak 25 • larunbata • 15:30

